



Arartekoaren 2015R-2640-14 Ebazpena, 2015eko abuzturaren 11koa. Horren bidez, Gasteizko Udalarari Gizarte Etxeen eta Kirol Instalazioen Araudia bete dezala edo haren artikulua alda ditzala gomendatu zaio.

Aurrekariak

1. Mendizorrotza Kirol Esparruko kirol-instalazioen erabiltzaile batek kexa bat aurkeztu zuen erakunde honetan; izan ere, ez dago ados esparruko kafetegiko alkohol-salmentarekin, adingabeak joaten baitira.

Pertsona horrek adierazi digu esparru horretako kafetegian alkohol-botilak begien bistan daudela agerian eta, produktua adingabeei saltzen ez dieten arren, lege-debeku bat dagoelako, oso adibide txarra dela, publizitateari dagokionez irudika dezakeenaz gain. Aurreko guztiaz gain, esan du jarduketa horrek kirol-instalazioen udal-araudia bera ez betetzea dela. Zehatz-mehatz, kexagilearen aburuz, araudiaren 16. artikulua bai edari alkohol-dunen salmenta eta kontsumoa bai haien publizitatea debekatzen ditu.

2. Gasteizko Udalak, gure informazio-eskaerari erantzunez, Kirol Zerbitzuko administrazio orokorreko teknikariak egindako txostena eman zuen. Horrek, gero aipatuko ditugun gogoeta juridikoetan oinarrituta, Mendizorrotzako Kirol Esparruko kafetegian edari alkohol-dunak saltzea, ikusgai jartzea eta kontsumitzea zuzenbidearekin bat datorrela pentsatzen du.

Gogoetak

1. Udaletik jasotako txosten teknikoak honako hau adierazten du aurrekarietan:

“La Red municipal de instalaciones deportivas está integrada por Complejos deportivos, Centros polideportivos, Equipamientos deportivos en Centros Cívicos, Frontones, Piscinas en Centros Cívicos, Campos de fútbol y otras instalaciones cuyo fin último es construir un tejido de servicios de cercanía que contribuya al fomento del deporte y de hábitos de vida saludable.

Un Complejo (industrial, deportivo o de otra naturaleza) es un conjunto de establecimientos o instalaciones situados en un mismo lugar (RAE).

Una instalación deportiva es un recinto o una construcción provista de los medios necesarios para el aprendizaje, la práctica y la competición de uno o más deportes. Ejemplos de instalaciones deportivas son los estadios, los pabellones deportivos, velódromos, pistas de tenis, gimnasios, piscinas cubiertas o de competición, etc.





El Complejo Deportivo Mendizorrotza está integrado por un conjunto de instalaciones deportivas conexas junto a otras de naturaleza social y de servicios. Está configurado como un espacio socio-recreativo que posibilita a la ciudadanía el desarrollo de su tiempo de ocio, las relaciones sociales y la mejora de la calidad de vida. Además este complejo sirve como zona de esparcimiento específica de verano a través del uso de sus piscinas recreativas. Para ello tiene distribuidos los diferentes ámbitos espaciales en función de los usos previstos como instalaciones deportivas, espacios de uso social y de servicios.

El Bar-Cafetería se encuentra dentro del Edificio social del C.D. Mendizorrotza, por lo que su funcionamiento se subordina al de todo el edificio y a las actuaciones que el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz disponga en él.

La cafetería no está integrada en ninguna de las instalaciones deportivas del complejo sino que forma parte de los espacios destinados a uso social y de relación interpersonal.”

Indarrean dagoen Gizarte Etxeen eta Kirol Instalazioen Araudiaren (hemendik aurrera: Araudia) 2. artikulua haxe dio arauari buruz: *“Araudi hau udal jabetzako gizarte etxe eta kirol instalazioetan aplikatuko da, horien kudeaketa beste baten esku utzi bada ere, eta beste baten jabetzakoak izanik Udalak kudeatzen dituen instalazioetan orobat”*. Beraz, arauketa hori aipatutako kirol-instalazioari aplika dakioke.

Gasteizko Udalaren web orrian, **Kirol instalazioen udal sarea** epigrafean, banaketa hau egiten da:

- 1. Kirol guneak: 1.1 Kirol Esparruak; 1.2 Kiroldegiak; 1.3 Gizarte etxeetako kirol ekipamenduak
- 2. Kirol zerbitzu eta ekipamenduak: Frontoiak, igerilekuak...

Bestalde, erakundearen webgunean ematen den informaziora jotzen badugu, Mendizorrotza Kirol Esparruak honako zerbitzu hauek dauzkala adierazten da: aparkalekua; argibide eta kontrol bulegoa; eraikin soziala (kafetegia eta autozerbitzua, jolasteko gelak, telebista, ikasteko aretoa...); aldagelak, armairutxoak eta komunak; kanpoko komunak; haur jolasak; udako taberna...

Hortaz, ezin gara ados egon udal-txostenaren baieztapenarekin, alegia, kafetegia ez dagoela ezein kirol-instalaziotan integratuta; izan ere, udal-informaziotik ondorioztatzen den moduan, Mendizorrotzako Kirol Esparrua (instalazioen multzoa, udal-teknikariak RAE aipatuz deitzen dion bezala), multzoa denez gero, aipatutako Araudia aplikatu behar zaien kirol-instalazio guztiak barne hartzen dituen kategoria generikoagoan integratuta dago edo horren zati bat da.



Laburbilduz, Araudiak berak “**instalazioetarako**” urteko abonamenduaren bidez udalaren kirol-**instalazio** guztiak erabiltzen dituztenen eta horietan ematen diren **zerbitzuez** gozaten dutenen eskubideak eta betebeharrak ezartzen ditu, besteak beste, kasu honetan bezala, kafetegiari eta udako tabernari dagokienez, esparruaren zati bat baitira (hain zuzen ere, abonamenduak instalaziotan ematen diren zerbitzuetarako sarrera libre eskaintzen du). Ondorio horietarako, nabaria da horrelako araudi batek ezin duela berez kirol-instalazioen sarearen erabilera eta funtzionamendu egokirako beharrezkoa den antolamendu guztia agortu; beraz, logikoa da arauketa hori osatzeko beharrezkoak diren jarraibideak, aginduak edo ebazpenak ematea, baina arau-esparru orokorraren garapentzat jo genitzakeen neurri horiek ezin dira hierarkikoki altuagoa den arauketaren aurkakoak izan.

2. Araudiaren 16. artikulua haxe zehazten du: *“Gizarte etxe eta kirol instalazioen barruan debekatuta dago edari alkoholodunak eta tabakoa kontsumitzea.”*

Udal-txostenak adierazten du artikulua hori eta 2. artikulua (aurreko gogoetan aipatu duguna, arauaren aplikazio-eremuari buruzkoa) kateatzean gogoeta hauek hartu behar direla kontuan:

“1.- El artículo 16 del citado Reglamento no se refiere a la compra, exhibición, venta, publicidad ni al mal ejemplo que supone el comercio de bebidas alcohólicas (mencionados por la persona reclamante) sino que prohíbe expresamente el consumo de las mismas en las instalaciones deportivas. Por tanto debe entenderse que la persona que ha presentado la queja objeto de este informe, ha realizado una interpretación extensa de este precepto sin atenderse a la literalidad del mismo.

2- A tenor de lo estipulado en el mencionado artículo 16 del párrafo anterior, está prohibido el consumo de bebidas alcohólicas y tabaco en todos los Centros Cívicos y en todas las instalaciones deportivas municipales. Tal precepto se acata en toda su extensión estando sancionada cualquier conducta contraria al cumplimiento de esta obligación.

3.- En virtud de lo establecido en el artículo 2, la cafetería del Edificio social del C.D. Mendizorrotza no está integrada en ninguna instalación deportiva de las que conforman el Complejo, por lo que no le es aplicable el artículo 16 del Reglamento de Centros Cívicos e instalaciones deportivas.”

Zalantzarik gabe, gure ustez, kirol-instalazioetan edari alkoholodunak kontsumitzea debekatuta badago, nekez onar daiteke debeku horrek produktuok kirol-instalazio horietan erostea, ikusgai jartzea, saltzea eta horiei buruzko publizitatea egitea barne hartzen ez duela dioen interpretazioa.

Mendizorrotza KEko eraikin sozialeko kafetegia esparrua osatzen duten kirol-instalazioetako ezeinetan integratuta ez egoteari eta beraz 16. artikulua



horretarako aplikagarria ez izateari dagokionez, aurreko gogoetan jadanik luzaz adierazi dugu gure iritzia. Dena den, laburpen moduan errepikatu behar dugu kafetegi-zerbitzua Mendizorrotza KEren erabiltzaileei ematen zaien beste zerbitzu bat dela, esparru hori kirol-instalazioen sarean sartuta dagoela eta arauketak ez duela horren inguruan inolako bereizketarik edo salbuespenik egiten.

3. Bestalde, udal-txostenak azpimarratu du esparruko kafetegia, gaur egun, 2026. urtera arte indarrean egongo den jabari publikoko emakidako kontratu baten bidez kudeatuta dagoela eta horretarako prestatutako gunetan edari alkoholodunak kontsumitzeko debekua aplikatzeak kontratuaren klausulak aldatzea ekarriko lukeela; hortaz, hori eginez gero kontratua administrazioaren erruz hutsaldu ahalko litzateke eta, ondorioz, kalte-galerak ordaindu beharko litzuzke.

Erakunde honek Araudiaren 16. artikulua esparruko kafetegi-zerbitzuari aplikatzeari buruz atera duen ondorioa ikusita, eta horrek udalak aipatutako kafetegiaren emakida-kontratuan hartutako betebeharrei dagokienez ekar dezakeen kontraesana aintzat harturik, ez betetzea konpontzeko egokiak diren neurriak hartu beharko lirateke.

Ondorio horietarako, udalerriek, beren eskumenen eremuan, besteak beste, erregelamenduak egin eta beren burua antolatzeko ahalak dauzkate (Toki-araubideen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1 a) artikulua). Beraz, udalari kontratuaren klausulak aldatzea eta ondorioz emakidadunari kalte-galerak ordaindu behar izatea egokia irudituko ez balitzaio, udal-arauketa emakida-kontratura egokitzeko beharra aztertu beharko luke, Araudia aldatzeko dagokion espedientea izapidetuz.

Nolanahi ere, ez betetze egoera konpontzeko beharrezkoak diren neurriak hartu bitartean, udalak edari alkoholodunak behintzat bistatik ezkutatzeak aukera kontuan hartu beharko luke, kexagileak eskatu zuen moduan.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11 b) artikuluan agindutakoarekin bat etorriz, honako gomendio hau egiten diogu Gasteizko Udalari:

GOMENDIOA

1. Gizarte Etxeen eta Kirol Instalazioen Araudiaren 16. artikulua ez betetzea konpontzeko egokiak diren neurriak har ditzala, Mendizorrotza Kirol Esparruko kafetegiaren emakida-kontratua aldatuz edo zedarrantutako gunen horretan edari alkoholodunen kontsumoaren debekua ezabatuz.





2. Ez betetze egoera konpontzeko beharrezkoak diren neurriak hartu bitartean, udalak edari alkoholdunak behintzat bistatik ezkutatzeko aukera kontuan har dezala, kexagileak eskatu zuen moduan.

